

## Xalex-enekoak: Zarauzko merkataritzaren aintzindari

*Gure herriko pertsonai zaharren gora-beherak eta historiak argitara eman nahian, ale honetan, Kale Nagusian jaio eta bizi diren bi ahizparengana hurbildu gara; Karmen Etxabe Aldai eta Miren Etxabe Aldaarengana hain zuzen ere. Nahiz eta Karmenek 89 urte izan eta Mirenek 85, burua argi dute oraindik. Honela, beraiek ezagutu nahian eta, aldi berean, aintzinako Zarautz-etaz zerbait gehiago jakitearren, solasaldi entretenigarri bat mantendu dugu beraiekin.*

**A**ita Zarauzkoa izanik eta ama Donostiakoa, gogoz oroitzen dituzte bi emakume hauek beraien gazte denborak. «Lau anai-arreba ginen —dio Karmenek— ni zaharrena naiz, bigarrena hilda dago, Miren hirugarrena da eta gazteena gizonezkoa, Ekonomian lizenziatua eta orain gutxi arte Deustu-

ko Unibertsitatean irakasten aritu denada». Karmenek entzumenarekin arazoak dituen arren eta Mirenek, aldiz ikusmenarekin, biak ongi konpontzen dira gauzak azaltzeko orduan.

«Gu Xalex-enekoak bezela ezagutuak izan gara betidanik, gure aita horrela ezagutzen bait zuten. Familia langilekoak gara gu. Gure aitona beste langile batzuekin, Zarautzetik Zumaiara doan bidea zabaldu zuen. Aitak, berriz, teila-tuak konpontzen zituen eta amak bere Donostiako denda, ezkondu bezain laister, hona ekarri zuen; Zarauzko lehenengo denda izanik, orain "Illarramendi" denda dagoen tokian hain zuzen ere».

Mirenek bereziki, gaztaroan igarotako une larriak oroitzen ditu. «Guda Zibilaren garaian alde egin beharra izan nuen eta nire kontura

ikasiriko lanbideaz baliatuz, Ere-soinka taldea eratu eta atzerrian herriz-herri ibili nintzen abesten. Karmen, ordea, guda bitartean, gurasoekin geratu zen etxea zaintzen».

«Garai hartan —dio Mirenek— beldurra besterik ez zegoen, geure pentsamenduak kaleratu ezinak ziren; bestela frankistek gartzelara sartzen zintuzten. Hala ere, nik ez nuen beldurrik zeren eta alderdikoa (PNV) nintzen eta taldearekin konpromisu bat bete behar bait nuen. Erreztasuna nuen hitzegiteko eta horregatik noiznahi ematen nintuen hitzaldiak deitzen ninduten herrietan. Gogoratzen dut, behin batean Mutrikutik hotsegin nindutela eta gaixo nengoenez ez nuen joaterik izan. Behartsuekin ez nuela ezer nahi erantzun zidaten: min handia eman zidan. Nire hi-




**Miren eserita eta Karmen zutik, 1930. urtean Alderdiko hitzaldi baten ondoren.**

• zaldietan minik gabeko gauzak ez nituen esaten, egiak bai.»

«Hau dena nire familiarentzat kaltetarako besterik ez zen izan; etsaiak besterik ez genituen eta gure alderdikoak, gehienak garai hartako beldurrarengatik, ixildu egiten ziren. Honela, gu izorrazteko, udarako egun eguzkitsu batean, hondartzan «Muera España» esan genuela zabaldu zen; dena gezurra zen, guri kalte egiteko. Honen ondorioz, gure dendari boikota egin zitzaion urteetan zehar».

«Vais a comer mierda» esan zien behin Zarautzera etortzen zen handiketako batek eta bai erantzun ere Mirenek «Pero la nuestra, que hasta ahora hemos comido la de ustedes». Hala ere, bazen besterik: Madrilgo «señora» batek beti beraien dendan egingo zituela erosketak esan zien. Honela, une txar hauek pasa ondoren, bere salmentekin jarraitu zuten. Beste batean, beraien aitari xentimorik gabe utzi zioten beste alderdikoek. Beretan sufrimentu handia jasan dugu eta gure bizitzan eraman dugun



**Karmen-ek 89 urte ditu eta Miren-ek 85.**

pentsakera eta jokaera funtsezkoa izan da.»

Lan asko egindako emakumeak dira eta Karmenek esaten digunez, Kristobal Balentziaga modistoarekin egin zuen lan urteetan zehar.

Zarautz ez dela gehiegi aldatu iruditzen zaie; Kale Nagusiak behintzat antzera jarraitzen omen du. Gainontzerako auzo berriak ez

dituztela ezagutzen aitortzen dute, baina lehen dena baratzeak omen ziren.

Gaur egun, apenas irteten dira etxetik. Hori bai, igandero «Zazpi» jatetxean bazkaltzen dute. Bestela, etxean, leihotik begira pasatzen dituzte orduak eta bisitaren bat dute-nean, hitzegiteko gogorik ez zaiela falta ederki asko frogatu digute.□

## CENTRO MEDICO DE ZARAUTZ

SERVICIO PERMANENTE DE 24 H.

- Medicina General
- Electrocardiograma
- Espirometría
- Análisis Clínicos
- Chequeos Completos
- Accidentes de Trabajo
- Servicio de ATS-Practicante
- Asistencia a Domicilio
- Urgencias
- Magnetoterapia
- Reconocimientos deportivos
- Accidentes escolares

CONCIERTOS CON COMPAÑÍAS DE SEGURO DE ENFERMEDAD  
(Capisa, Asisa, Aegon, Diputación, Lagun-Aro, Previaasa)

CONCIERTOS CON MUTUAS DE ACCIDENTES DE TRABAJO  
(Pakea, Mapfre, Asepeyo, Fraternidad, Mupag, Cyclops)

Foruen Kalea 2-2º Tfno. 130397

20800 ZARAUTZ